# SAGARDOA HAN-HEMEN

Ibaetako etxe askotan egin izan da sagardoa, eta orain ere badaude tolareak lauzpabost tokitan, Urkiola sagardotegi profesionekoaz gain

**IBAETAN SAGARDO ASKO EGIN DA ETA EGITEN DA**

:: FELIX IBARGUTXI

Sagar toki eta sagardo toki izan da beti Ibaeta. Bai baserrietan bai kale-etxe zenbaitetan egin izan da sagardoa. Hasteko, hor dago Zuatzu baserriko tolare zaharra, XVI. mendekoa. Baina, etnografiak alde batera utzita, sagardoa gauza bizi bat da: aurten auzoko bospasei baserritan egingo zuten sagardoa eta, noski, baita auzoko sagardotegi profesionalean ere, Urkiolan.

Garai batean, orain 50 edo 70 urte, hiru sagardotegi publiko izan zituen auzoak: Errotaberrikoa, Urrusti Azpikoa eta Ixa Berrikoa.

### Zuatzu

Zaharrenetik hasita. Ibaetatik gora, Aingeru Goardakoaren ermita aldera goazela, dago Zuatzu baserria. XVI. mendearen erdialdera eraiki zuten, eta lehenengo aipamen idatzia 1625ekoa da. Lope de Isastik aipatzen du bere 'Gipuzkoako Probintzi Txit Leial eta Txit Noblearen Historia Laburpena' delakoan. Ordutik gaur arte iraun duten elementu batzuk baditu etxe horrek, hala nola egurrezko egitura sendoa.

Historia eta arkitektura aldetik balio historiko handiko etxea da Zuatzu, eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zerrenda Orokorrean monumentu gisa onartua dago.

Horko habe tzar horiek tolare bati eutsi zioten mendeetan zehar. Gaur egun tolarearen arrasto gutxi batzuk gelditzen dira; besteak beste, burdinazko ardatza, XIX. mende bukaerakoa beharbada. Eta baita sagarra jotzeko matxaka ere, hasieran eskuz eragiten zena, gero motor txiki bat erantsi zitzaiona. Baliteke –hala uste dute teknikari batzuek behintzat– etxe horretako zutabe garrantzitsuenetako bat haritz oso berezi bat izatea. «Esan didate etxea eraikitzean seguru asko bertako haritz bat aprobetxatu zutela. Zuztarrak moztu zizkioten eta bertan utzi zuten zutik, lana egin zezan», esan digu hango Manuel Artolak.


Zuatzu baserriko tolarea eta matxaka. :: MIKEL FRAILE

«Azkeneko aldiz sagardoa, hemen, orain dela hamabost bat urte egin genuen –dio nagusiak–. Etxerako eta inguruko baserrietarako egiten genuen. Haiek beren sagarra ekartzen zuten eta denentzako lain izaten zen gero sagardoa. Giza indar asko behar izaten zen eta lagun asko biltzen ziren. Hemen, parte bat pitarra izaten zen –sagardoa urarekin nahastua– egunero hartzeko. Ez zen botilaratzen. Ni entzunda nago hemendik sagardoa Donostiako Parte Zaharrera eramaten zela, Euskal Herria kalean zeuden bi sagardotegitara adibidez».

Badu etxe honek gertakizun historiko bitxi bat ere. Josu Tellabide eta Asier Agirresafroberen '101 bazter Donostiako' liburuan pasadizo bitxia agertzen da: «1876ko neguan, liberalek –'beltzek' gure aiton-amonen hi-tzetan– Zuatzu inguruan zeuden karlistak eraso zituzten, eta azkenean ihes egitera behartu. Bai-

UNION FARMACEUTICA GUIPUZCOANA
LES DESEA FELICES FIESTAS

Lukas
BEREZITASUNAK:
ARDOTEGIA, BISTROT,
FRUITU, BARAZKIAK,
CHARCUTERÍA,
WINE BAR MARISKOAK
Julio Caro Baroja, 1 (Benta Berri)
Tel. 943 224 800 · DONOSTIA
www.lukasgourmet.com

korela INFORMATICA
Venta y reparación de Ordenadores y Consumibles
Instalación y mantenimiento de REDES

Bar LANPERNA
Servicio de Catering
Menú del Día
Camino de Igara, 19 - Tel. 943 210 829
20009 Igara - Donostia

GRAN TURISMO
ELKAR S.A. AUTOCARES
Oficina: 943 493 766
Fax: 943 493 452
Móvil: 610 770 469
Eskalantegi, 3 - 5.º dcha.
20110 PASAI-ANTXO

SCAR
DONOSTIA
AUTORRECAMBIOS TUNING
Portuetxe, 45 • 20018 DONOSTIA

ICAMER
COLCHONES
Portuetxe, 53 bajo
20018 San Sebastián
Tel. 943 215 600 - Fax 943 217 579

JATETXEA RESTAURANT
JOSE MARI
Fermín Calbetón, 5
Tel.: 943 424 645
DONOSTIA

CONSTRUCCIONES ERGA, S.L.
Camino de Portuetxe, 18 - 2.º (Edif. Igara)
20018 DONOSTIA - SAN SEBASTIAN
Tel.: 943 316 870 - Fax: 943 212 568

DROGUERIA - PERFUMERIA
IRENE
Jai Zoriontsuak opa dizkizue
Avda. de Zarauz, 109
Tel. 943 212 247
SAN SEBASTIAN

Syntorama
TRADIZIOTIK BERRIKUNTZARA
· ALBOKA
· JUAN MARI BELTRAN
· XABI SAN SEBASTIAN
www.syntorama.com

TALLERES BERAZA
REPARACION
DE AUTOMOVILES EN GENERAL
Abierto de 7.30 h. en adelante
Avda. de Zarauz, 111
Teléfono: 943 214 047
SAN SEBASTIAN

IBAI ikastola
IKASTETXE PUBLIKOA

IGARA
Camino Portuetxe, nº 53
Edificio BEIZA (Igara)
20018 DONOSTIA
Tel.: 902 100 979 · Fax: 943 216 514
igaracars@igaracars.com
www.igaracars.com


Jesusa eta Ventura, Elisabet, Koldo, Mikel, Andoni eta Nekanerekin.

**Ventura Basurto añorgarra, aita, Jesusa Lasarterekin ezkondu zen Portuetxe baserrira**

**Han jaio ziren lehen hiru seme-alabak. Beste biak, aitona-amonek utzitako lurretan egindako Lorena etxean**

tzen zutela.

Zabortegia 1955. urte ingurura arte egon omen zen irekita. Dirudienez, hainbat eskariri erantzunez, azkenean, zabortegia kendu eta parketxo bat egin zuten (gaur egun CEMEI eraikina den leku horretan).

Igarako eskolari buruz ere aritu gara, baina urteetan atzera egin dugu eta, kontatu digute beren aitona-amonaren garaian, Aristegieta baserriko markesak (Pakearen markesak) ematen zizkietela eskolak inguruko haurrei; besteak beste, Loistegiko beren amona Juana Berazari. Deigarria iruditzen zaie amona Juanaren familiaren ibilbidea; izan ere, ohiko joeraren kontra, baserritik edo herritik hirira joan beharrean, Donostiako erdigunetik Loistegira joan baitziren. Loistegiko Juana Beraza Portuetxeko Santos Lasarterekin ezkondu zen Portuetxera.

Portuetxe baserria XVI. mendekoa da eta monumentu historikoa da. Lur-eremu zabala zuen baserriak eta erreka pasatzen zen baserriaren ondo-ondotik. Baserriaren izenaren esanahia hobeto ulertzeko, esan dezagun gure solaskideen birraitona txalupan eraman zutela Portuetxetik Santa Mariara bataiatzera.

Uraldietan, ordea, beti izaten zituzten arazoak, eta horiek leuntzeko, baserriaren goialdean ganaduarentzako beste estalpe bat izaten zuten, uholdea zetorrenean ganadua hara eramateko.

Portuetxetik gertu Errota Zahar errota zegoen. Bertan presa bat zegoen eta bertatik eramaten zuten ura hodi bidez Lizarriturriraino. Dena kanalizatu zuten arte baserrietan ere, ura bonba bidez hartzen zuten.

Txofreko zezen-plaza bota zutenean hango hondakinak Tolosa hiribidetik Portuetxerainoko tartean bota zituzten eta horrela hasi ziren Ibaetako zingira betetzen.

Basurto-Lasartetarrak haurrak zirenean, auzokoek Portuetxen egiten zuten San Juan sua eta beste hainbat jolas. Bestalde, osaba Joxe Marik baratza kendu zuenean, lursail zabala geratu zen eta autoan ibiltzen ikasteko leku aproposa bihurtu zen, inondik ere. Haur eta gaztaroko aktibitateen artean, errekan arrantza egitea zegoen, zoritxarrez, Gurelesa ireki arte bakarrik iraun zuena.

## Oiloak zaintzea, zigor eskolan

Auzoa herri bat bezalakoa zela adierazi digute. Auzoko haur guztiak Igarako eskolara joaten ziren, 5-14 urteko neska-mutilak. Oso oroimen berezia dute Igarako eskolaz. Maila guztietatikoak elkarrekin egoten ziren, betiere, neskak alde batetik eta mutilak bestetik. 'Cara al sol' abestu arazten zieten eta parrez esan digute 'El florido pensil' gogorarazten diela eskolako esperientziak.

Gogoan dute, halaber, katiuskak uzteko gela bat zegoela, baita maisu edo maistrari egindako bihurrikeriaren bat ere; esate baterako, ordularian ordua aldatu, eta ordu bete lehenago atera izan zirenekoa. Horrelakoetan ez zen zigorrik falta eta eskola azpian zeuden oiloak zaintzera bidaltzen zituzten edo/eta amerikarrek bidaltzen zuten janaria ez zieten banatzen.

Eskolaren kanpoaldean asto pila egoten zen, inguruko baserritarrek utzitakoak, handik ateratzen baitzen Donostiara zihoan Lizarazu autobusa eta huraxe hartzen baitzuten baserritarrek Donostiara joateko, beren barazkiak saltzera.

Haur zirenean, asteburuetan auzoko sagardotegietara jende asko etortzen omen zen bazkariarekin egun pasa. Sagardo basoak eskatzen ziren; ohitura hori ere, auzoa bezala, aldatu egin da.

Garbi dago auzoa izugarri aldatu dela ordutik, besteak beste, Portuetxeko nagusia pixkanaka lurrak saltzen joan eta industriak sartzen joan ziren; lehen industria Unión Farmacéutica izan zela gogorarazi digute.

Festen inguruan galdetuta, kontatu digute, Festa Batzordean parte hartzen zutela, eta hainbat ekintza antolatzen zituztela: dantzaldiak, kantaldiak... Auzoko euskal dantza taldeko kideak zirela ere adierazi digute. Orain Koldoren seme batek, Pellok, hartu du lekukoa eta Festa Batzordean ari da lanean buru belarri.

Bukatzeko ordua iritsi zaigu eta gurekin izan ez diren anaia-arrebei buruz galdetu diegu; Andoni Bartzelonan bizi da Eva Minguellarekin ezkondua eta Mikel Zarautzen, Arantza Unanuerekin ezkondua.

Beste hirurak auzoan geratu dira eta Elisabet izan ezik (Altzoko Joxean Lizarribarrekin ezkondua), beste biek auzoko bikotekidea dute, Koldorena Arantza Arruti da eta Nekanerena, aldiz, Ramon Gorostidi.

Beraiei buruz ere aritu gara pixka batean. Arantzaren ama, Luisi Anza, Txapaldegikoa da eta gai horretan argi utzi nahi izan digute, Txapaldegi ez zegoela Antiguon, Ibaetan baizik.

*Izan ere, Ibaeta Benta Berritik Usurbilgo mugetaraino iristen da. Horrez gain, behin eta berriz jaso dugun errebindikazioa adierazi digute Basurtotarrek ere; hau da, Ibaeta ez dela, ez Antiguo, ezta Igara ere.*

Ramonek ere ama ibaetarra du, Urreisti Gainen jaiotakoa, Mikeli Iriarte, alegia. Baina, Anza eta Iriartetarrei buruz beste urteren batean arituko gara.













Zuatzu baserriko nagusia, Manuel Artola. :: MIKEL FRAILE


Errotaberrikoa oso sagardotegi jendetsua izan zen. :: USOZ


Izaskun eta Jose Mari, Urkiola sagardotegiko bi belaunaldi. :: M. FRAILE

**Zuatzu baserriko tolarean orain dela hamabost urte egin zen sagardoa azkeneko aldiz**

**«Ni hirugarren belaunaldikoa naiz. Aitona Itsasotik etorri zen», dio Izaskun Urkiolak**

na beltzak etxe barrura ere sartu ziren, eta nagusiak, estuasunean, ukuiluko zulo batean gordetzea lortu zuten. Bizirik irten zen, nahiz eta baionetaz zauritu zuten, gaitz erdi! Etxea mirariz ez zuten erre».

### Urkiola

Urkiolatarrek Urkiola izeneko sagardotegia daukate, gaur egungo Ibaetako sagardotegi profesional bakarra. Urteetan eta urteetan Jose Mari jardun ondoren (88 urte ditu), orain alaba Izaskun ari da arduradun moduan. «Ni hirugarren belaunaldikoa naiz –esan digu–. Baserriaren izena Ferrene da. Seguru asko, Kataluniatik etorritako Ferrer batek eraiki zuelako, 1842an. Gero gure aitona etorri zen hona bizi izatera. Miguel Urkiola zituen izen-abizenak eta Ezkio-Itsason jaiotakoa zen. Emaztea, Agustina Loinaz, Errekaldekoa zuen eta hark bazekien sagardo egiten. Nik uste dut orain dela ehun bat urte hasiko zirela Ferrenean sagardo egiten».

Gero, orain dela 25 urte, sagardotegiaren ateak publikoari zabaltzea erabaki zuten urkiolatarrek. Eta duela hamasei urte gaur egungo sagardotegi berria eraiki zuten.

### Kalekoak eta beste

Ibaetako kale nagusian ere bazeuden sagardotegiak. Adibidez, Ixa Berri etxean estimazio handiko sagardotegia egon zen orain 50 urtera arte. Bautista Mendizabalek gobernatutako sagardotegi hark tolarea aldamenean zeukan, orain Gazte Artea soziedadea dagoen tokian. Eta orain Lanperna taberna dagoen leku horretan zaldia eta karroa edukitzen zituen sagardogileak, botilak batera eta bestera banatzeko karroa, alegia.

Jende asko azaltzen zen Bautistarenera, batzuk kaxuela ekarrita afari-merienda egiteko, besteak sagardo hutsa edatera. Mugimendu handia egoten zen. Nagusia hortik bizi zen.

Botilan ere saltzen zuen >

Autos Illarra
BOSCH Service
Bosch Car Service
Mantenimiento y reparación del automóvil
C/ Iribar, 82 (Polígono Neinor)
20018 San Sebastián
e-mail:autosillarra@gmail.com
Tel.: 943 00 25 69
Fax: 943 00 25 72

bultz Grupo
Auditoría – Asesoría
Procedimientos Concursales
Servicios Jurídicos
Portuetxe, 63 2º C
(Edificio Bonea)
943 005 540
Fax 943 005 542
e-mail: grupobultz@bultz.net
DONOSTIA

vodafone
Distribuidor Acreditado Empresas
DETEL COMUNICACIONES, S.L.
Avda. Zarautz, 117 - bajo
20018 DONOSTIA
Tel. 943 100 777

teresatxo

ILLARRA
Cocina dirigida por los campeones de Euskadi 2003-2006
- Pescados y Carnes a la Parrilla.
- Cocina Creativa.
- Huerta Propia.
- Comidas de Empresa. Menús Especiales.
- Bodas, Comuniones, Bautizos.
- Zona Recreo Infantil.
Tel. 943 214 894 · Movil: 647 276 871

loiti clínica dental
- Diagnóstico digital panorámico
- Higiene
- Estética
- Blanqueamiento
- Prótesis fija, removibles
- Ortodoncia, restauración y endodoncia
- Cirugía implantes, periodoncia
REPARACIONES URGENTES EN EL DIA
Tfl.943 313 732

Trinkete Ibaeta
-5 pistas de padel
-Un frontón trinkete
-Mini frontón
-Piscina climatizada, sauna, gimnasio...

DIGITEX
Cartelería - Rotulación
telf.: 943 313 777/fax: 943 313 820
digitex@digitexcarteleria.com

Bautistak. «Bera zen Donostian litroko botila kristal zurikoa ibiltzen zuen sagardogile bakarra», esan digu Josetxo Maritxalar auzokideak.

Bautistak eta emazte Mariak (Maria Luzuriagak) haur bat izan zuten, urtea bete aurretik hil zena. Ondorengorik ezean, sagardotegi hura itxi egin zen Bautistak erretiroa hartzean.

Etxe hori 1917an eraikia da eta pentsatzekoa da Bautistak garaitsu hartan ekingo ziola negozioari. Sagardotegia itxi eta gero, auto-karrozeria jarri zuen auzokoa ez zen gizon batek.

Eta Bautistarena ez zen kaleko sagardotegi bakarra. Antiguatik gatozela auzoko sarrera-sarreran dagoen Zubiondo etxean ere bazegoen beste bat. Gaur egungo Muxarra jatetxearen gainean, hain zuzen ere. «Hor egiten zen sagardoa Antiguako almazen batera eramaten zen, gero handik inguruko tabernei saltzeko», esan digu Isidro Garmendiak. Aspaldiko kontuez ari gara. Orain dela 60 bat urte itxi zituen ateak sagardotegi hark. Manuel Garmendia izan zuen fundatzaile, ezkontzaz Lizarriturritik Ibaetara aldatutako gizona, alegia. Haren emaztea, Dolores Zubizarreta, Zubiondokoa baitzen.

Portuetxe baserrian ere egin ohi zen sagardoa, eta handik gertu, errepide ondoko Urrusti Azpin, sagardoa egiteaz gain, salgai jartzen zuten, eta baita otorduak prestatu ere. Jose Mari Erkizia izan zen hango nagusia, eta gero seme Domingo.

Ia etxe guztietan egiten zen sagardoa. «Ni Iribar baserrian jaioa naiz. Gure etxean sagar asko zegoen eta aldamenekoek, Igara baserrikoek, tolarea zeukaten. Bi etxeetarako egiten zuten sagardoa», esan digu Angelita Vitoriak.

### Ekogor baserria

Ekogor baserria Pokopandegi ondoan dago. Etxe dotorea da, harri landu asko dituena. Han Joseba Lizarralde bizi da, jardin-kontuetako profesionala (Belgikako etxe batentzat ari da lanean) eta urte asko daramatzana sagardoa egiten. «Etxe honetan betidanik egon da tolarea. Nik obra egin nuen eta tokiz aldatu nuen orain dela 26 urte. Sagastiko lana asko gustatu izan zait eta sagarrondo mota ugari landatu izan ditut. Etxean 65 sagar mota edukitzera iritsi naiz, baina orain gutxiago ditut, berrogeita piko. Bi bider egiten dut sagardoa: irail atzenean eta urri atzenean. Bakoitzean altzairuzko upel bat osatzen dut. Eta gero barrikote batzuk egiten ditut etxean lagunekin», esan digu.

Ekogorreko tolarea oso garrantzitsua izan zen auzoan garai batean. «Ni txikia nintzenean, inguruko baserri askotako jendea etortzen zen bere sagarrarekin gure tolarera».

Joseba Lizarralderen aitona Mandubitik etorri zen Donostia aldera, Igeldoko harrobira. Lo eta dena harrobian egiten zuen. Erdigaixorik bukatu zuen eta Ibaetako baserri honetan eman zioten aterpe. Morroi moduan hasi zen



Ekogor baserriak 400 urtetik gora ditu.



Joseba Lizarralde etxeko sagarrarekin eta bi bilobarekin.

**Bi bider egiten du sagardoa Joseba Lizarraldek: irail atzenean eta urri atzenean**

**«Esan izan digute gure baserria tolare izateko egin zutela», dio Munoko Santos Irizarrek**


CARROCERIAS IBAETA
SERVICIO TOTAL DE CARROCERÍA
Polígono Belartza
C/ Gurutzegi, 13 Pab. B-2
20018 DONOSTIA
Tel/Fax: 943 372 266

Deskontu eta abantaila guztiak elkar txartelarekin
elkar
www.elkar.com

Fruitu denda
La Ribera
FRUTAS SELECTAS
Resurrección Mª de Azkue nº 2
Benta Berri (Bº Antiguo)
Avda. Zarautz (Lorea)

akaimo
carpintería
Pokopandegi bidea, 26 bajo
20018 Igara Donostia
Tel - Fax: 943 312 351
Móvil: 629 404 151
akaimo@hotmail.com

ZORU LIXAKETA ETA BARNIZAKETA
J. L. GAZTELUMENDI
LIJADO Y BARNIZADO
COLOCACION DE PARQUET
Avd. Zarautz, 124 - 5.º C
20018 DONOSTIA
Tel. 943 468 842
Móvil 639 563 666

Esther Mujika
Peluquera - Estilista
Plaza de Usurbil, 3
20018 DONOSTIA
Tel. 943 223 651

LABORATORIO DENTAL
José González Vázquez
Pokopandegi Bidea, 26-1º Igara
20018 Donostia - San Sebastián
Tel. 943 312 828 - Fax: 943 314 878
Móvil: 686 100 087
laboratoriodjg@hotmail.com

robers
Urbieta, 39 - Tel. 943 467 889
Larramendi, 10 - Tel. 943 464 797
Fax: 943 445 547
E-mail: robers@euskalnet.net
20006 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

TANTOR
PINORI S.L.
Venta al mayor textil
C/ Portuetxe, 83 - bajo 1 (Edificio Aragi)
20018 - SAN SEBASTIAN
Tel. 943 310 462 • Fax: 943 317 472
E-mail: pinori@facilnet.es

BUCEO DONOSTI
CURSOS Y BAUTISMOS
ALQUILER Y VENTA DE MATERIAL
CARGAS DE BOTELLAS
SALIDAS EN EMBARCACIÓN
TRABAJOS SUBMARINOS
Tel./Fax: 943 312 313
Móvil: 647 438 889 - 607 419 426
e-mail: buceo@buceodonosti.com - www.buceodonosti.com

BIKAY
cenor
ELECTRODOMESTICOS
SERVICIO TECNICO
Avda. de Zarauz, 117 - Tel. 943 217 136
20018 SAN SEBASTIAN

IGARA
Liburudenda - bulebeak
Prensa y revistas
Material escolar y de oficina
Bollería y pan
Txutxes

BIRA TABERNA
- Bocadillos
- Platos combinados
- Cazuelitas
- Raciones
- Pintxos fríos y calientes
EL TXOKO DEL MOTOR
Camino Igara 19 • Tel.: 943 218 078 • 20009 DONOSTIA

BA
BONI ALDAYA
CORREDURIA DE SEGUROS S/L
Tels.: 943 215 700 - 943 213 337
Fax: 943 213 474
www.bonialdaya.com

BAR ERROTA
PINTXOS
MENU DEL DIA
C/ Usurbil, 1
Errotaburu
SAN SEBASTIAN
TELEFONO: 943 311 553

NACEX
Servicio Exprés
Avda. de Zarautz, 115 bajo
20018 San Sebastián
Tel. 943 316 247

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

marugame café bar
Café-Bar Marugame • Plz. Marugame s/n
20018 DONOSTI (Berio) • Tel.: 943 212 988

PERSIANAS
FIDEL MUGICA, S.L.
Avda. de Zarauz, 55
Teléfono: 943 210 291
SAN SEBASTIAN

Pescados MERDIA, s. l.
AGUSTIN Y FERMIN
Grupo El Pilar, 30 bajo - 20014 MARTUTENE
Tel. 943 458 123
Fermin Calbetón, 48 - 20300 DONOSTIA
Tel. 943 427 314

lanean eta azkenean etxeko alaba batekin ezkondu.

Historia handiko etxea da Ekogor. Hari buruzko aipamen zaharrena 1566ko Donostiako erroldakoa da. P. Barrio Panguak argitaratu zuen errolda horretan, hiriko kaleetan bizi ziren familiak aipatzen dira, eta horietan artean, Lamoleta kalean, besteak beste, honakoa agertzen da: «Joanes de Ecogora dueño de la casa de Ecogora de Ibaeta, jurisdicción de esta villa».

**Muno eta Balentegi**

«Gure etxean beti izan dira sagastiak, eta orain aspaldiko gutxiena; betidanik egin da sagardoa, eta gure aitonak badakigu eramaten zuela Parte aharreko taberna batera. Barrika luze batean garraiatzen zuen, gurdian ipinita», esan digu Muno baserriko Santos Irizarrek.

Urtero egiten dute sagardoa, normalean mila litro, eta sagar-urte ona egokitu ezkero baita gehiago ere, horretarako beste kupel bat alokatzen dutelarik. Iaz, adibidez, 700 litrokoa alokatu zuten. Altzairuzko ontziak ibiltzen dituzte. «Garbiketarako-eta askoz hobeak dira egurrezkoak baino».

Oraingo tolareak 75 urte ditu. Mandioan dago, zorua porlanezkoa dauka eta zulo batetik beheko solairuan jasotzen dute zukua.

«Guri esan izan digute baserri hau tolare izateko egin zutela. Gailurrean hiru habe ditu, eta horietako bi tolare zaharraren egiturari eusteko izan behar zuten», jarraitzen du Santos Irizarrek. «Hori ikusteko aditua izan behar da, jakina».

Bestalde, Ibai ikastola ondoan dagoen Balentegi etxe multzoan ere hasi dira sagardoa egiten. Aitor Zuriarrainek orain bi urte ekin zion, aitaren laguntzarekin. Etxerako lain egiten dute. Izan ere, aitak, Iñakik, sagasti handia dauka etxe ondoan, sagar mota askokoa gainera.



Muno baserriko Jone eta Santos Irizar aita-alabak. :: USOZ

Guipúzcoa CARGO S.Coop.
Grúas de Transporte Nacional - Internacional
Teléfono Asistencia 902 401 101
Camino de Pokopandegi, 20 bajo
OFICINA Tel.: 943 215610 • Fax: 943 315282
e-mail: gruas@guipuzcoacargo.com
www.guipuzcoacargo.com
20018 DONOSTIA (Igara)

ISASTI, S.A.
Concesionario Oficial Centro Integral Opel
OPEL
Avda. Tolosa, 184
20018 SAN SEBASTIAN
Tel. 943 316 357
Fax 943 217 249
http://www.isasti.com

erein argitaletxea
tolosa etorbidea 107
Tel 943 218 300
www.erein.com

Coca-Cola

Jatetxea MUXARRA Bokateria
Karta • Eguneroko menua • Bokatak
IGARA bidea 16 behea. DONOSTIA-SAN SEBASTIAN 20018
Tels. 943 310 797 • 943 217 686

Carrocerías IGARA
BANCADA Y HORNO
Pokopandegi, 26 • Tel. y Fax: 943 218 257 • 20018 SAN SEBASTIAN

KANPOEDER
Casa Rural
Aingeru Zaindaria, 58
20018 DONOSTIA
SAN SEBASTIAN
Teléfono 943 310 754
Móvil 606 279 464
info@kanpoeder.com
www.kanpoeder.com

Imanol
- fontanería
- albañilería
- escayola
- pintura
- carpintería
- parquet
- electricidad
- pladur
- todos los gremios
Ondo Pasa Jaiak
Tel. 943 219 479
Fax: 943 214 034
Plaza Karlos Santamaria, 1 Bajo
20018 DONOSTIA

Himecil, s.l.
HIERROS Y METALES CILVETI
Igara Bidea, 90 · 20018 DONOSTIA-GIPUZKOA
Tel. 943 216 909 - Fax. 943 224 104
GESTOR DE RESIDUOS NO PELIGROSOS EUX/008/05

Area 7
SOLUCIONES EN SEGURIDAD
(943) 21 78 00 21 79 99
INTRUSION • INCENDIO • VIDEOVIGILANCIA
CONTROL DE ACCESOS Y PRESENCIA • DETECCION DE GASES
INTEGRACION DE SISTEMAS • INGENIERIA E INSTALACIONES